

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure produktua, merkatuan daudenen aldera, zerbait berria da, orain arte inoiz ikusi ez den asmakuntza bat. Enpresa berria denez, hasiera batean ez dugu diru euskarrik izango eta lokal edo denda bat irekitzeak inbertsio handia suposatuko liguke. Horregatik, hasiera batean automatikoa izango da gure harremana bezeroekiko, webgune baten bidez aurkitu ahal izango dituzte gure produktu guztiak, baita gurekin harremanetan jartzeko aukerak ere arazorik edo galderarik badute.



Hau da webgunera sartuta aurkitu daiteken lehenengo gauza. Argazkian borobildutako zatian, webguneak dituen atal guztiak agertzen dira: Guri buruz, produktuak, zaporeak, ezaugarriak eta kontakta gaitzazu.

Lehenengo atalean, izenburuak esaten duen bezala, guri buruzko informazioa aurki daiteke. Bertan nor garen eta zer egiten dugunaren azalpen labur bat ematen dugu bezeroek hurbilago senti gaitzaten eta nola funtzionatzen dugun. Gure produktua zeini dagoen bideratua, baita erosteko arrazoiak eta zergatiak ere.

Ondoren, zein produktu mota dauden aukeran ikus daiteke, kolore eta tamaina desberdinetakoak. Produktuaren nondik norakoak bertan azaltzen dira, azalpen eta xehetasun ugari emanez.

Hurrengo atalean, zein zapore mota dauden aukeran aurki daiteke argazkian ikusi daitekeen bezala. Beheko botoiari emanez gero, lehiotxo bat agertzen da zepore guztiekin. Horrez gain, eskuragai dituzten pack guztiak agertzen dira eta botoietan klikatuz haien inguruko informazio guztia agertzen da bezeroek dudarik ez izateko. Baita atera berri ditugun nobedade guztiak eta haien inguruko informazio guztia ere.

Kontakta gaitzazu

Zu laguntzeka gaude! Edozein galdera baduzu, idatziguzu eta guk gustura zure zalantzak argituko ditugu.

Izena _____ Telefonoa _____

Emaila _____

Mezua _____

I'm not a robot

RECAPTCHA
Privacy Terms

Bidai

Horrez gain, bezeroekin harreman pertsonala izan nahi dugula adierazten diegu, edozein galdera edo duda badute gurekin kontaktuan jartzeko aukera emanez.



Zerbitzu pertsonalizatua

Erosleen etxeetara eramaten dugu produktua eta azalpenak ematen ditugu bertan, produktuaren nondik norakoak ondo ezagutzeko.



Zuretzat 24/7

Bezeroekin harreman estua izatea garrantzitsua iruditzen zaigu, horregatik arazo edo zalantzaren bat baduzu, kontakta gaitzazu edozein momentutan eta guk gustura lagunduko zaitugu!



Konfiantza

Edozein zalantza edo arazo lasai esaiaguzu, guk poz-pozik konponduko dugu eta!

Web guneaz gain, publizitatea egingo dugu sare sozial bidez (instagram adibidez), koloretsua, bisuala eta impaktantea izango da, jendearen atenzioa lortzeko eta gure produktuari buruz gehiago ikertzeko.

Produktuan interesatuta dagoen jendearekin harreman pertsonala izan nahi dugu, eta horretarako, haien etxeetan makina probatzeko frogak eta azalpenak emateko aukera ematen dugu, bezeroek hurbilago senti gaitzaten.

Fidelizatorako eta marka irudi bat sortzeko, era askotako promozioak egingo ditugu. Enpresa desberdinekin kolaborazioak egiteko ideia daukagu, pack bat erosi ezker, jatetxe konkretu batean deskontuak lortu ahal izatea adibidez. Baita km0 eta bertako produktuak saltzen dituzten dendekin edo gertuko baserri edo enpresa txikiekin.

Edo hilabeteko kuota batengatik eduki eskusiboa (premium) izateko aukera ere ematen dugu, hau da momentura arte atera diren zapore guztiak erabiltzeko ahalmena izatea.

Produktuak arrakasta badu eta enpresa ondo badoa, lokal bat alkilatu eta denda fisiko bat jarriko genuke Donostin. Horrela, webgunearekin aski ez duenak edo produktua pertsonalki ikusi eta probatu nahi duenak bere etxera joan gabe, aukera hau izango luke. Bertan, frogak egingo dira bezeroekin, makina proba dezaten eta ditugun diseinu guztiak ere ikus ditzaten.

Umekin ere jolasak egiteko espazioa ere izango genuke, zapore desberdinak jarriaz, zein den asmatu beharko lukete eta horrela, haiek ere produktua eta honek eskenitzen dien esperientzia pixka bat gehiago ezagutu dezaten.

webgunea: <https://sitebuilder.tailorbrands.com/site/2937712b/?preview=true>